


Laikotasunaren Eskola Gutuna



1-Espainiako Estatuak ez du erlijiorik, eta, beraz, hezkuntza-sistemak neutra-
la izan behar du erlijio-gaiaren aurrean. Erlijio konfesionalaren irakaskunt-
zak ez du lekurik eskola-curriculumaren esparruan.

2-Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Haurren Eskubideei buruzko
Tratatuetan ezarritako printzipioen arabera arautuko dira ikastetxeak.

3-Ikasle guztiek dute hezkuntza zibikoa eta kultura komuna izateko eskubi-
dea, baita kontzientzia-askatasunean oinarritutako zeharkako hezkuntza ja-
sotzeko eskubidea ere, inolako doktrinamendurik gabe.

4-Hezkuntzak integrala izan behar du. Eskolak ikasleei beharrezko baldintza
guztiak eskaini behar dizkie, beren nortasuna eta gaitasun kritikoa gara dit-
zaten, sinesmenen arloan bere hautua egin ahal izan dezan.

5-Erlijioa eta sinesmen-aniztasuna eremu pribatuak dira. Hezkuntza-
komunitateko kide den pertsona bakoitza libre da sinesteko edo ez sinesteko,
erlijio jakin bateko kide izateko edo ez izateko.

6-Ikastetxeek sexu, jaiotza, etnia, iritzi eta erlijio-sinesmen edo beste edozein
eratako diskriminazio oro saihestu behar dute.

7-Sinbologia erlijiosoa, proselitismoa, liturgiak edo ideologia partikularra
azaltzeak ez du lekurik ikastetxeetan, eta ez lukete izendapen erlijiosorik edo
ideologia baztertzaileekin zerikusirik izan behar.

8-Ikasleek eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideek edozein iritzi erli-
jioso edo ideologiko eman dezakete, baina errespetuz, inoiz ez modu nabarme-
nean eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren eta Urteko Plan Orokorraren
esparruan, laikoak izango baitira.